## TOKI ADMINISTRAZIOAREN SAILA

325

**13/2013 ERABAKIA. Honen bidez, izendatu egiten da Urbisuko Administrazio Batzarreko bigarren kide kudeatzailea.**

Arabako Lurralde Historikoko Hauteskunde Batzordeak Arabako Foru Aldundiari jakinarazi dio hutsik dagoela kargu bat Orbisoko Administrazio Batzarrean, erregidore-lehendakari Juan Ramón Gámiz San Pedro jaunak uko egin diolako karguari, eta, horren ondorioz, ez dagoelako 2. kide kudeatzailearen kargua beteko duen hautagairik.

Horiek horrela, Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuetako Erregidore eta Kideak Hautatzeko Foru Arauak 19. eta 21. artikuluetan eta Arabako Foru Aldundiaren martxoaren 26ko 829/85 Erabakiak 2. paragrafoan xedatutakoarekin bat etorriz (erabaki horren bidez ezarri ziren Arabako Administrazio Batzarretako batzorde eta bokal kudeatzaileak izendatzeari, eratzeari eta funtzionamenduari buruzko arauak), egoki jotzen da kide kudeatzailea izendatzea administrazio batzar horretan dagoen kargu hutsa betetzeko, hauteskundeak egin arte.

Azaroaren 8ko Diputatuen Kontseiluaren 62/2012 Foru Dekretuak Toki Administrazioaren Sailari ematen dio administrazio batzarretako hauteskunde araubidearen jarraipena egiteko ahalmena, beste eginkizun batzuen artean. Horren ondorioz, erakunde horri dagokio kargu horiek beteko dituzten pertsonak proposatzea, Foru Aldundiak izenda ditzan.

Horregatik, Toki Administrazioaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honakoa

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa.- Tomás Arróniz Arrastio jauna izendatzea Orbisoko Administrazio Batzarreko bigarren kide kudeatzaile, Emilio Carlos Berruete González jauna erregidore-lehendakari eta José Arróniz Arróniz jauna lehen kide kudeatzaile.

Bigarrena.- Martxoaren 26ko 829/85 Erabakiak bigarren paragrafoan xedatutakoarekin bat etorriz, aipatutako kide kudeatzailea erregidore-lehendakariak horretarako beren-beregi deituko duen aparteko bilkura batean jabetuko da karguaz. Erabaki hau jaso eta hurrengo zazpi egun baliodunen barruan egingo da bilkura hori.

Bilkura horretako akta bilkura egin eta hurrengo hiru egun baliodunen barruan bidaliko zaio Arabako Foru Aldundiari.

Hirugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko urtarrilaren 15a.– Diputatu nagusia, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.– Toki Administrazioaren Saileko diputatua, JAVIER RUIZ DE ARBULO CERIO.– Toki Administrazioaren zuzendaria, LORENZO ARNAIZ ARMENTIA.

## DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN LOCAL

325

**ACUERDO 13/2013, del Consejo de Diputados de 15 de enero, que designa Vocal Gestor Segundo de la Junta Administrativa de Orbiso.**

La Junta Electoral del Territorio Histórico de Álava ha puesto en conocimiento de esta Diputación Foral la existencia de una vacante en la Junta Administrativa de Orbiso producida como consecuencia de la renuncia presentada por D. Juan Ramón Gámiz San Pedro, a su cargo de Regidor-Presidente, sin que haya podido ser cubierta la vacante que queda (Vocal Gestor/a 2º) por falta de sustitutos electos.

A la vista de lo anterior, procede, conforme a lo dispuesto en los artículos 19 y 21 de la Norma Foral de Elección de Regidores/as y Vocales de los Concejos del Territorio Histórico de Álava y apartado Segundo del Acuerdo de la Diputación Foral 829/85, de 26 de marzo, por el que se dictaron normas sobre el nombramiento, constitución y funcionamiento de Comisiones Gestoras y Vocales Gestores/as de las Juntas Administrativas de Álava, designar a la persona que, en calidad de Vocal Gestor/a, ocupe la vacante existente en la citada Junta Administrativa hasta la celebración de nuevas elecciones.

El Decreto Foral nº 62/2012, del Consejo de Diputados de 8 de noviembre, atribuye al Departamento de Administración Local, entre otros cometidos, el seguimiento del régimen electoral de las Juntas Administrativas, dentro del cual ha de comprenderse el de proponer las personas que nombre la Diputación Foral para ocupar tales cargos.

En su virtud, a propuesta del Diputado de Administración Local, y previa deliberación del Consejo de Diputados, en sesión celebrada en el día de la fecha

ACUERDO

Primero.- Designar Vocal Gestor Segundo de la Junta Administrativa de Orbiso a D. Tomás Arróniz Arrastio, siendo Regidor-Presidente D. Emilio Carlos Berruete González y Vocal 1ª D. José Arróniz Arróniz.

Segundo.- El citado Vocal Gestor, conforme a lo prevenido en el apartado Segundo del Acuerdo 829/85, de 26 de marzo, deberá tomar posesión de su cargo en sesión extraordinaria convocada al efecto por el Regidor-Presidente y que deberá celebrarse en el plazo de los siete días hábiles siguientes a aquél en el que se reciba la comunicación del presente Acuerdo.

La Certificación del Acta de tal sesión deberá ser remitida, en el plazo de los tres días siguientes a la fecha de su celebración, a esta Diputación Foral.

Tercero. Este Acuerdo se publicará en el BOTHA.

En Vitoria-Gasteiz, a 15 de enero de 2013.– El diputado general, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.– El diputado de Administración Local, JAVIER RUIZ DE ARBULO CERIO.– El director de Administración Local, LORENZO ARNAIZ ARMENTIA.

*Foru Aginduak*

## OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

315

**2/2013 FORU AGINDUA, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuarena, urtarrilaren 11koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren eredu berriak onartzen dituena: 303 Autolikidazioa; 308 Baliokidetasun errekarguaren araubide berezia, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Arautegiaren 30. bis artikulua, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Arauaren 21.4 artikulua eta noizbehinkako subjektu pasiboak; 309 Aldizkakoa ez den autolikidazioa, eta 322 Erakunde taldea. Banakoen eredua.**

Irailaren 18ko 595/2012 Foru Aginduaren bitartez, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren eredu berri hauek onartu ziren: 303 Auto-

*Órdenes Forales*

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

315

**ORDEN FORAL 2/2013, del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos de 11 de enero, por la que se aprueban los nuevos modelos del Impuesto sobre el Valor Añadido, 303 Autoliquidación, 308 Régimen especial de Recargo de Equivalencia, artículo 30 bis Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido, artículo 21.4º Norma del Impuesto sobre el Valor Añadido y sujetos pasivos ocasionales, 309 Autoliquidación no periódica y 322 Grupo de entidades. Modelo individual.**

Mediante Orden Foral 595/2012 de 18 de septiembre, se aprobaron los nuevos modelos del Impuesto sobre el Valor Añadido,

likidazioa; 308 Baliokidetasun errekarguaren araubide berezia, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Arautegiaren 30. bis artikulua eta noizbehinkako subjektu pasiboak; 309 Aldizkakoa ez den autolikidazioa, eta 322 Erakunde taldea. Banakoen eredua. Onarpen hori, uztailaren 13ko 20/2012 Errege Dekretu Legeak, aurrekontu egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzkoak, batez ere zerga tasa orokorrean eta murriztuan eta Baliokidetasun errekarguko tasetan egindako aldakuntzen ondorioz egin zen. Azken xedapen hau Arabako Lurralde Historikoan aplikatu beharrekoa da abenduaren 30ko 1096/1992 Araugintzako Foru Dekretuaren indarrez.

Aurretik aipatutako ereduetan, Errege Dekretu Lege hori indarrean jarri zen arte aplikatu beharreko zerga tasekin batera, hori indarrean jarri zenez gero aplikatu beharreko zerga tasa berriak zeuden. 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako likidazio aldiei dagozkien autolikidazioak aurkezteari begira, ez du zentzurik lehenengo horiek jasotzeak. Hortaz, agindu honen bidez, eredu berriak onartzen dira, aipatutako Errege Dekretu Legea indarrean jarri zenez gero indarrean dauden zerga tasak bakarrik jasotzen dituztenak.

Beste alde batetik, 303 eta 322 ereduetan lauki berriak sartu dira horietan subjektu pasiboa alderantzikaturik dagoen kasuak bereizirik jasotzeko, kontuan hartuz azaroaren 20ko Diputatuen Kontseiluaren 10/2012 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuak sartu dituen aldaketekin horrelako eragiketek hartu duten garrantzia. Dekretu horrek Arabako zerga araudira egokitzen ditu urriaren 29ko 7/2012 Legeak (zerga eta aurrekontu araudia aldatu eta finantza araudia egokitzen duenak, iruzurrari aurrea hartzeko eta haren aurka egiteko ekintzak areagotzeko) sartutako aldaketak.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horren inguruan emandako txostena ikusirik,

Horregatik, dagozkidan ahalmenez baliatuz, honakoa

XEDATZEN DUT

**Lehenengoa. 303 eredu berriaren onarpena.**

Bat. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren 303 eredu berria onartzen da: “Balio Erantsiaren gaineko Zerga. Autolikidazioa”. Foru agindu honen I. eranskinean dago.

Eredu horrek bi ale dauzka: bata administrazioarentzat da eta bestea interesdunarentzat.

Bi. Eredu hau aurkeztu behar duten zergaren subjektu pasiboek Balio Erantsiaren gaineko Zergaren eredu batzuk (303 tartean dela) onartu dituen otsailaren 2ko 46/20009 Foru Aginduan ezarritako tokian eta epealdietan aurkeztu behar dute. Aurkezteko moduari dagokionez, berriz, bi aukera daude: aurreko aginduan ezarritakoari lotu behar izatea edo zergapeko batzuek eredu jakin batzuk Internet bidez telematikoki aurkezteko baldintza orokorrak eta prozedura ezarri dituen otsailaren 10eko 39/2010 Foru Aginduan ezarritakoa bete behar izatea.

**Bigarrena. 308 eredu berriaren onarpena.**

Bat. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren 308 eredu berria onartzen da: “Balio Erantsiaren gaineko Zerga. Baliokidetasun errekarguaren araubide berezia, BEZaren Araudiaren 30. bis artikulua, BEZaren Arauaren 21.4 artikulua eta noizbehinkako subjektu pasiboak”. Foru agindu honen II. eranskinean dago.

Eredu horrek bi ale dauzka: bata administrazioarentzat da eta bestea interesdunarentzat.

Bi. Eredu hau aurkeztu behar duten zergaren subjektu pasiboek Balio Erantsiaren gaineko Zergaren eredu batzuk (308 tartean dela) onartu dituen otsailaren 2ko 46/20009 Foru Aginduan ezarritako tokian eta epealdietan aurkeztu behar dute.

Subjektu pasiboak erakunde publikotzat edo izaera sozialeko establezimendu pribatutzat jota badaude, eta eskatzen badute erosi eta gero organismo aintzatetsiei berauen gizaldeko, karitatezko edo hezkuntzazko jardueren esparruan EBren lurraldetik kanpora esportatzeko emango zaizkien ondasunen erosketan jasan dituzten eta

303 Autoliquidación, 308 Régimen especial de Recargo de Equivalencia, artículo 30 bis Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido y sujetos pasivos ocasionales, 309 Autoliquidación no periódica, y 322 Grupo de entidades. Modelo individual como consecuencia de las modificaciones, fundamentalente, de los tipos impositivos general y reducido, así como de los de Recargo de equivalencia, realizadas por el Real Decreto-Ley 20/2012, de 13 de julio, de medidas para garantizar la estabilidad presupuestaria y de fomento de la competitividad, aplicable al Territorio Histórico de Álava en virtud de Decreto Foral Normativo 1096/1992, de 30 de diciembre.

En los modelos antes citados convivían los tipos impositivos aplicables hasta la entrada en vigor del Real Decreto-Ley citado anteriormente, con los nuevos tipos impositivos aplicables desde la entrada en vigor del mismo. De cara a la presentación de las autoliquidaciones correspondientes a los períodos de liquidación iniciados a partir de 1 de enero de 2013 carece de sentido recoger los primeros por lo que por la presente Orden se aprueban nuevos modelos que recogen únicamente los tipos impositivos vigentes desde la entrada en vigor del Real Decreto-Ley antes citado.

Por otra parte, se incluyen en los modelos 303 y 322 nuevas casillas para recoger en ellas de forma separada los supuestos de inversión de sujeto pasivo dada la relevancia que este tipo de operaciones adquiere con las modificaciones introducidas por el Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 10/2012, del Consejo de Diputados de 20 de noviembre, que adapta a la normativa tributaria alavesa las modificaciones introducidas por la Ley 7/2012, de 29 de octubre, de modificación de la normativa tributaria y presupuestaria y de adecuación de la normativa financiera para la intensificación de las actuaciones en la prevención y lucha contra el fraude.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,

DISPONGO

**Primero. Aprobación del nuevo modelo 303.**

Uno. Se aprueba el nuevo modelo 303 “Impuesto sobre el Valor Añadido. Autoliquidación” que figura como Anexo I de la presente Orden Foral.

Dicho modelo consta de dos ejemplares: uno para la Administración y otro para el interesado.

Dos. La presentación de este modelo se realizará por los sujetos pasivos del Impuesto que estén obligados a ello, en cuanto al lugar y plazos establecidos en la Orden Foral 46/2009, de 2 de febrero, por la que se aprueban diversos modelos del Impuesto sobre el Valor Añadido, entre los que se encuentra el modelo 303 y en cuanto a la forma según lo previsto en la citada disposición o en la Orden Foral 39/2010, de 10 de febrero, por la que se establecen las condiciones generales y el procedimiento para la presentación telemática por Internet para determinados obligados tributarios y modelos, según proceda.

**Segundo. Aprobación del nuevo modelo 308.**

Uno. Se aprueba el nuevo modelo 308 “Impuesto sobre el Valor Añadido. Régimen especial de Recargo de Equivalencia, artículo 30 bis Reglamento del IVA, artículo 21.4º Norma del IVA y sujetos pasivos ocasionales” que figura como Anexo II de la presente Orden Foral.

Dicho modelo consta de dos ejemplares: uno para la Administración y otro para el interesado.

Dos. La presentación de este modelo se realizará por los sujetos pasivos del Impuesto que estén obligados a ello, en la forma, lugar y plazos establecidos en la Orden Foral 46/2009, de 2 de febrero, por la que se aprueban diversos modelos del Impuesto sobre el Valor Añadido, entre los que se encuentra el modelo 308.

En el caso de sujetos pasivos que tengan la consideración de Ente público o de establecimiento privado de carácter social, que soliciten la devolución de las cuotas soportadas que no hayan podido deducirse totalmente, en la adquisición de bienes que sean objeto de una entrega posterior a Organismos reconocidos que los exporten fuera

osorik kendu ezin izan dituzten kuoten itzulketa, aldez aurretik salbuespenerako eskubidea aitortuta, BEZaren Arauaren 21.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, eredu hau aurreko paragrafoan adierazitako eran eta tokian aurkeztuko da. Kasu hauetan, autolikidazioa hiru hilabeteko epean aurkeztu beharko da, itzulketarako eskubidea sortzen duen ondasun ematea egin denetik aurrera.

**Hirugarrena. 309 eredu berriaren onarpena.**

Bat. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren 309 eredu berria onartzen da: "Aldizkakoa ez den autolikidazioa". Foru agindu honen III. eranskinean dago.

Bi. Eredu hau ondokoek aurkeztu behar dute:

1°. Jarraian adieraziko diren pertsonek eta erakundeek, Batasunaren barruan egindako ondasun eskuraketak direla eta, baldin eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako identifikatuta badaude Batasunaren barruan egindako eskuraketen bolumena urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuaren 14. artikuluan ezarritako mugara heltzeagatik edo artikulu horretan ezarritako aukera hautatzeagatik:

a) Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide bereziari lotutako subjektu pasiboek, araubide horretan dagoen jarduera baterako ondasunak eskuratzeagatik Batasunaren barruan.

b) Zerga osoaren edo horren zati baten kenkaria egiteko eskubidea sortzen ez duten eragiketak bakar-bakarrik egiten dituzten subjektu pasiboek.

c) Ez enpresaburu ez profesional gisa ez diharduten pertsona juridikoek.

2°. Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide bereziari lotutako subjektu pasiboek, baldin eta beren jardueran Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kargapean egonik hartatik salbuetsita ez dauden ondasun higiezinen emateak egiten badituzte eta zerga horren subjektu pasiboak badira, urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuaren 84. artikuluaren lehenengo paragrafoaren 2. zenbakian xedatutakoarekin bat etorriz.

3°. Balio Erantsiaren gaineko Zerga baliokidetasun errekarguaren araubide berezian ordaintzen duten subjektu pasiboek Batasunaren barruko ondasunak eskuratzeagatik, baldin eta zerga hori eta aipatutako errekargua ordaindu behar badituzte, bai eta urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuaren 84. artikuluaren lehenengo paragrafoaren 2. zenbakian eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Arautegiaren 8. artikuluaren 1. idatz zatian ezarritako kasuetan ere.

4°. Ez enpresaburu ez profesional ez diren pertsonek eta erakundeek, Batasunaren barruan garraiobide berriak eskuratzeagatik kostu bidez.

5°. Esleipendunek, nahitaez gauzatu beharreko prozedura administratibo edo judizialetan, baldin eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako enpresaburu edo profesionalak badira eta ahalmena badute zerga horren subjektu pasiboen izenean eta kontura haien autolikidazioak aurkezteko eta esleipen eragiketaren ondoriozko zerga sartzeko, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Araudiaren bosgarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat etorriz.

6°. Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide bereziari heldutako subjektu pasiboek, baldin eta bidegabe jasotako konpentsazioak itzuli behar badituzte, urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuaren 133. artikuluan xedatutakoaren arabera.

7°. Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide bereziari heldutako subjektu pasiboek, baldin eta araubide berezia aplikatzen hastearen ondoriozko erregularizazioak sartzen badituzte, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Araudiaren 49. bis artikuluan xedatutakoaren arabera.

8°. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren subjektu pasibo batzuek, berariaz zehazten direnek.

del territorio de la Comunidad en el marco de sus actividades humanitarias, caritativas o educativas, previo reconocimiento del derecho a la exención, de acuerdo con lo establecido en el artículo 21.4º de la Norma del IVA, la presentación de este modelo se realizara en la forma y lugar señalado en el párrafo anterior. En estos casos la autoliquidación se presentará en el plazo de tres meses desde que se haya realizado la entrega de bienes que origina el derecho a la devolución.

**Tercero. Aprobación del nuevo modelo 309.**

Uno. Se aprueba el nuevo modelo 309 "Autoliquidación no periódica del Impuesto sobre el Valor Añadido" que figura como Anexo III de la presente Orden Foral.

Dos. Este modelo será presentado:

1°. Por las personas y entidades que se indican a continuación, en la medida en que realicen adquisiciones intracomunitarias de bienes y estén identificadas a efectos del Impuesto sobre el Valor Añadido por haber alcanzado su volumen de adquisiciones intracomunitarias el límite establecido en el artículo 14 del Decreto Foral Normativo 12/1993, de 19 de enero, o por haber ejercitado la opción contemplada en el mismo artículo:

a) Sujetos pasivos acogidos al régimen especial de la agricultura, ganadería y pesca cuando se trate de adquisiciones intracomunitarias de bienes destinados al desarrollo de la actividad sometida a dicho régimen.

b) Sujetos pasivos que realicen exclusivamente operaciones que no originan el derecho a la deducción total o parcial del Impuesto.

c) Personas jurídicas que no actúen como empresarios o profesionales.

2°. Por los sujetos pasivos acogidos al régimen especial de la agricultura, ganadería y pesca cuando realicen en el ejercicio de su actividad entregas de bienes inmuebles sujetas y no exentas del Impuesto sobre el Valor Añadido, así como cuando resulten ser sujetos pasivos de dicho tributo, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 84, apartado Uno, número 2° del Decreto Foral Normativo 12/1993, de 19 de enero.

3°. Por los sujetos pasivos del Impuesto sobre el Valor Añadido que tributen en el régimen especial del recargo de equivalencia y que estén obligados al pago de dicho impuesto y del citado recargo por las adquisiciones intracomunitarias de bienes que efectúen, así como en los supuestos contemplados en el artículo 84, apartado Uno, número 2° del Decreto Foral Normativo 12/1993, de 19 de enero, y en el artículo 8 apartado 1 del Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido.

4°. Por las personas o entidades que no tengan la condición de empresarios o profesionales y realicen adquisiciones intracomunitarias de medios de transporte nuevos, a título oneroso.

5°. Por los adjudicatarios, en los procedimientos administrativos o judiciales de ejecución forzosa, que tengan la condición de empresarios o profesionales del Impuesto sobre el Valor Añadido, que estén facultados para presentar en nombre y por cuenta del sujeto pasivo de dicho tributo, la autoliquidación correspondiente y para ingresar el impuesto resultante de la operación de adjudicación, en los términos previstos en la Disposición Adicional Quinta del Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido.

6°. Por los sujetos pasivos acogidos al régimen especial de la agricultura, ganadería y pesca cuando deban efectuar el reintegro de las compensaciones indebidamente percibidas, según lo dispuesto en el artículo 133 del Decreto Foral Normativo 12/1993, de 19 de enero.

7°. Por los sujetos pasivos acogidos al régimen especial de la agricultura, ganadería y pesca cuando realicen el ingreso de las regularizaciones practicadas como consecuencia del inicio en la aplicación del citado régimen especial, según lo dispuesto en el artículo 49 bis del Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido.

8°. Por aquellos sujetos pasivos del Impuesto sobre el Valor Añadido para los que así se determine.

Hiru. 309 eredua non aurkeztu.

Oro har, subjektu pasiboek Arabako Foru Aldundiaren laguntzaile jarduteko baimendutako finantza erakundeetan aurkeztu behar dute autolikidazioa, eta kuota ere haietan ordaindu behar dute autolikidazioa aurkeztearekin batera.

Autolikidazioetan nahitaez itsatsi behar dira Arabako Foru Aldundiko Ogasun Zuzendaritzaren Zergadunekiko Harremanetarako Zerbitzuak ematen duen identifikazio etiketak itsatsi.

Lau. 309 eredua aurkezteko epea.

Autolikidazioa eta horren ondoriozko sarrera apirileko, uztaileko eta urriko egutegiko lehenengo hogeita bost egunetan egin behar dira. Azken likidazio aldikoa, hurrengo urteko urtarrilaren lehenenego hogeita bost egunen barruan aurkeztu behar da.

Aurrean xedatutakotik salbu daude Batasunaren barruko garraiobide berrien eskuraketen ondoriozko autolikidazioak: honelako eredua eragiketa egiten denetik hogeita hamar egun igaro baino lehen aurkeztu behar da, eta nahitaez behin betiko matrikulazioa egin aurretik. Ibilgailua matrikulatzeko, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuaren 13. artikuluaren 2. zenbakian aipatzen diren garraiobide berriak erosten dituztenei eskatuko zaizkie eredu hau aurkeztea, sarreraren laukia behar bezala balidatuta daukala.

Derrigorrezko betearazpeneko epai edo administrazio prozeduretan, adjudikazioaren zenbatekoa ordaintzen denetik hilabete pasatu baino lehen aurkeztu behar da eredua.

**Laugarrena. 322 eredu berriaren onarpena.**

Bat. 322 eredu berria onartu da: “Balio Erantsiaren gaineko Zerga. Erakunde taldea. Banakoen eredua”. Foru agindu honen IV. eranskinean dago.

Bi. Eredu hau erakunde talde bateko kide diren enpresaburuek eta profesionalek aurkeztu behar dute, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuaren 163. quinquies artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Hiru. Zergapeko batzuek eredu jakin batzuk Internet bidez telematikoki aurkezteko baldintza orokorrak eta prozedura ezarri dituen otsailaren 3ko 39/2010 Foru Aginduan xedatutakoarekin bat etorriz, eredu hau Internet bidez aurkeztu behar da nahitaez.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Foru agindu hau indarrean jartzen denetik aurrera, baliogabeturik geratuko dira hartan xedatutakoaren aurka doazen maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak, eta bereziki Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren 595/2012 Foru Agindua, irailaren 18koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren eredu berriak onartzen dituena: 303 Autolikidazioa; 308 Baliokidetasun errekarguaren araubide berezia, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Arautegiaren 30.bis artikulua eta noizbehinkako subjektu pasiboak; 309 Aldizkakoa ez den autolikidazioa, eta 322 Erakunde taldea. Banako eredua

AZKEN XEDAPENA

Foru agindu honek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra, eta 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren likidazio aldiei dagozkien autolikidazioak aurkezteko aplikatuko da lehenengo aldiz.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko urtarrilaren 11.– Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko Foru Diputatua, AITOR URIBESALGO LORENZO.– Ogasun Zuzendaria, JUAN IGNACIO MARTÍNEZ ALONSO.

Tres. Lugar de presentación del modelo 309.

La presentación de la autoliquidación y el pago simultáneo de la cuota se efectuará, con carácter general por cada uno de los sujetos pasivos, en las entidades financieras autorizadas para actuar como Entidades Colaboradoras por la Diputación Foral de Álava.

Las autoliquidaciones deberán llevar obligatoriamente adheridas las etiquetas identificativas que facilita el Servicio de Relación con los Contribuyentes de la Dirección de Hacienda de la Diputación Foral de Álava.

Cuatro. Plazo de presentación del modelo 309.

La presentación de la autoliquidación y el ingreso resultante de la misma se efectuará en los veinticinco primeros días naturales de los meses de abril, julio y octubre. La correspondiente al último período de liquidación deberá presentarse durante los treinta primeros días naturales del mes de enero del año siguiente.

Se exceptúan de lo anterior las autoliquidaciones correspondientes a adquisiciones intracomunitarias de medios de transporte nuevos, en cuyo caso, el plazo de presentación del presente modelo será de treinta días desde la realización de la operación y, en cualquier caso, antes de la matriculación definitiva de dichos medios de transporte. Para la matriculación del vehículo, se exigirá a los adquirentes de medios de transporte nuevos mencionados en el artículo 13, número 2° del Decreto Foral Normativo 12/1993, de 19 de enero, del Impuesto sobre el Valor Añadido la presentación de este modelo con la casilla de ingreso debidamente validada.

Si se trata de procedimientos judiciales o administrativos de ejecución forzosa, el plazo de presentación será de un mes a contar desde el pago del importe de la adjudicación.

**Cuarto. Aprobación del nuevo modelo 322.**

Uno. Se aprueba el nuevo modelo 322 “Impuesto sobre el Valor Añadido. Grupo de entidades. Modelo Individual” que figura como Anexo IV de la presente Orden Foral.

Dos. Este modelo será presentado por los empresarios o profesionales que formen parte de un grupo de entidades en virtud de lo dispuesto en el artículo 163 quinquies del Decreto Foral Normativo 12/1993, de 19 de enero, del Impuesto sobre el Valor Añadido.

Tres. La presentación de dicho modelo se realizará obligatoriamente por vía telemática, a través de Internet, de conformidad con lo dispuesto en la Orden Foral 39/2010, de 3 de febrero, por la que se establecen las condiciones generales y el procedimiento para la presentación telemática por Internet para determinados obligados tributarios y modelos.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Desde la entrada en vigor de la presente Orden Foral quedan derogadas cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan a lo dispuesto en la misma y en particular la Orden Foral 595/2012, del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, de 18 de septiembre, por la que se aprueban los nuevos modelos del Impuesto sobre el Valor Añadido, 303 Autoliquidación, 308 Régimen especial de Recargo de Equivalencia, artículo 30 bis Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido y sujetos pasivos ocasionales, 309 Autoliquidación no periódica, y 322 Grupo de entidades. Modelo individual.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOTHA, y será de aplicación, por primera vez, para la presentación de las autoliquidaciones correspondientes a los períodos de liquidación iniciados a partir de 1 de enero de 2013.

Vitoria-Gasteiz, a 11 de enero de 2013.– Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, AITOR URIBESALGO LORENZO.– Director de Hacienda, JUAN IGNACIO MARTÍNEZ ALONSO.

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
www.alava.net

# Balio Erantsiaren gaineko Zerga
**AUTOLIKIDAZIOA**

# Impuesto sobre el Valor Añadido
AUTOLIQUIDACIÓN

**303**

**Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila**
**Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos**

## IDENTIFIKAZIOA ■ IDENTIFICACIÓN

**IDENTIFIKAZIO TXARTELA JARTZEKO LEKUA**
ESPACIO RESERVADO PARA ETIQUETA IDENTIFICATIVA

**SORTZAPENA** DEVENGO

**EKITALDIA** ■ EJERCICIO
**EPEALDIA** ■ PERÍODO

**Jarduerarik gabe** Sin actividad **90**
**Ordezkoa** Sustitutiva **91**

**Hileroko itzulketetarako erregistroan erroldatuta dago (BEZ-aren arautegiko 30. Artikulua)?**
¿Está inscrito en el Registro de devolución mensual (Artículo 30 Reglamento del IVA)?
**BAI** SÍ **92** **EZ** NO **93**

## AUTOLIKIDAZIOA ■ AUTOLIQUIDACIÓN

### BEZ ESKURATUA ■ IVA DEVENGADO

| | OINARRIZKO ZERGAGAIA ■ BASE IMPONIBLE | | TASA ■ TIPO | | KUOTA ■ CUOTA | | GUZTIRA ■ TOTALES |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Errg. Orokor.** Régimen General | 01 | | 02 | 4% | 03 | | |
| | 204 | | 205 | 10% | 206 | | |
| | 207 | | 208 | 21% | 209 | | |
| **Errg. Orokorreko oinarri eta kuotena aldaketa** Modif. Bases y cuotas Rég. General | 370 | | | | 371 | | |
| **Subjektu pasiboaren inbertsioa** Inversión del sujeto pasivo | 372 | | | | 373 | | |
| **G. Baliokide** R. Equivalencia | 10 | | 11 | 0,5% | 12 | | |
| | 213 | | 214 | 1,4% | 215 | | |
| | 216 | | 217 | 5,2% | 218 | | |
| **G. Baliokid. oinarri eta kuotena aldaketa** Modf. Bases y cuotas R. Equivalencia | 374 | | | | 375 | | |
| **Bat. barruko ondasun eta zerbitz. Esk.** Adqui. Intrac. de bienes y servicios | 19 | | 20 | 4% | 21 | | |
| | 222 | | 223 | 10% | 224 | | |
| | 225 | | 226 | 21% | 227 | | |
| **Bat. barruko ondasun eta zerb.esk. oinarri eta kuotena aldak.** Modif. Bases y cuotas Adqui. Intrac. de bienes y servicios | 376 | | | | 377 | | |
| **ESKURATUTAKO KUOTA GUZTIRA** TOTAL CUOTA DEVENGADA ......... (03) + (206) + (209) + (371) + (373) + (12) + (215) +(218) + (375) + (21) + (224) + (227) + (377) | | | | | | | 28 |

### KENKARIAK ■ DEDUCCIONES

| | | |
|---|---|---|
| **BEZ kengarria ondasun eta zerbitzu arrunten Batasunaren barruko eragiketetan** ■ IVA deducible operaciones interiores de bienes y servicios corrientes | 30 | |
| **Barneko inbertsio ondasunen eragiketen BEZ kengarria** ■ IVA deducible operaciones interiores de bienes de inversión | 31 | |
| **Ondasun arrunten inportazioen BEZ kengarria** ■ IVA deducible en importaciones de bienes corrientes | 32 | |
| **Inbertsio ondasunen inportazioen BEZ kengarria** ■ IVA deducible en importaciones de bienes de inversión | 33 | |
| **Ondasun eta zerbitzu arrunten elkarte barneko eskuraketen BEZ kengarria** ■ IVA deducible adq. intrac. de bienes y servicios corrientes | 34 | |
| **Invertsio ondasunen elkarte barneko eskuraketen BEZ kengarria** ■ IVA deducible en adquisiciones intracomunitarias de bienes de inversión | 35 | |
| **N. Ab. eta Arr. Erregimen Bereziko Konpentsazioak** ■ Compensaciones Régimen Especial A.G. y P. | 36 | |
| **Inbertsioen erregularizazioa** ■ Regularización Inversiones | 37 | |
| **KENTZEKOA GUZTIRA** TOTAL A DEDUCIR ......................................... (30) + (31) + (32) + (33) + (34) + (35) + (36) + (37) | 38 | |
| **ALDEA** DIFERENCIA ................................................................ (28) – (38) | 39 | |

| **Eragik. Zenbatek. Proportz. Banaketa** Distrib. Proporc. Volumen operac. | **ARABA** % ÁLAVA | **GIPUZKOA** % GIPUZKOA | **BIZKAIA** % BIZKAIA | **GAINERAKOA** % RESTO |
|---|---|---|---|---|
| | 40 | 41 | 42 | 43 |

| | | |
|---|---|---|
| **Arabako Herrialde Historikoari dagokion kuota** Cuota atribuible al Territorio Histórico de Álava (39) x (40) | 44 | |
| **Arabako Herrialde Historiko honetan aurreko epealdietatik konpentsatzeko kuotak** Cuotas a compensar de períodos anteriores en el Territorio Histórico de Álava | 45 | |
| **AUTOLIKIDAZIOAREN EMAITZA** RESULTADO DE LA AUTOLIQUIDACIÓN (44) – (45) | 60 | |

| | | |
|---|---|---|
| **Batasunaren barruko ondasunen eta zerbitzuen emateak, guztira** Total entregas de bienes y prestac. de servicios intracomunitarias | 50 | |
| **Esportazio balioa guztira** Total exportaciones y operaciones asimiladas | 51 | |
| **Kenketa eskubidea sortzen duten eragiketak loturik ez badaude edo subjetu pasiboaren inbertsioa izan badute** Operaciones no sujetas o con inversión del sujeto pasivo que originan el derecho a deducción | 52 | |

| | | |
|---|---|---|
| **Errekargua, epez kanpo aurkeztu izanagatik** Recargo presentación extemporánea ............... | 61 | |
| **Berandutza korrituak** Intereses demora ........................................ | 62 | |
| **Kentzekoa (bakar-bakarrik autolikidazio ordezkoaren kasuan): kontzeptu, ekitaldi eta epealdi berarengatik aurkeztutako aurreko autolikidazioaren emaitza** A deducir (exclusivamente en el caso de autoliquidación sustitutiva: resultado de las autoliquidaciones anteriores presentadas por el mismo concepto, ejercicio y periodo) | 63 | |
| ............................................................... | | |
| **ZERGA ZORRA GUZTIRA** TOTAL DEUDA TRIBUTARIA ...................... | 80 | |

**KONPENTSATZEKOA GUZTIRA** TOTAL A COMPENSAR **82**

**ITZULTZEKOA GUZTIRA** TOTAL A DEVOLVER **81**

**DATA ETA IZENPEA** FECHA Y FIRMA

**Data eta izenpea** ■ Fecha y firma

**ITZULTZEA** DEVOLUCIÓN

**Bezeroaren kontu kodea (BKK)** ■ Código cuenta cliente (CCC)

301 302 303 304

**SAR. FROG. ORDAIN GUTUNA** JUSTIFICANTE INGRESOS-CARTA DE PAGO

**Zigilua eta izenpea** ■ Sello y firma **Entitatearen gakoa** ■ Clave entidad **Data** ■ Fecha **Zenbatekoa** ■ Importe

RE. 12/138

**PSN** ■ PVP: 0,12 €

## JARRAIBIDEAK

Autolikidazio eredu hau ondoko araubidea aplikatzen zaien jarduerak egiten dituzten subjektu pasiboek erabili behar dute: zergaren araubide orokorra edo haren araubideetako beste edozein, hauek izan ezik: erakunde taldearen araubide berezia, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezia, baliokidetza errekarguaren araubidea eta araubide erraztua.

**1. EKITALDIA:** Autolikidazioari dagokiona adierazi behar da.

**2. EPEALDIA:** Autolikidazioari dagokiona adierazi behar da, hura hilekoa nahiz hiruhilekoa izan.

**3. IDENTIFIKAZIOA:** Identifikazio etiketa itsatsi horretarako dagoen gunean.

**4. JARDUERARIK GABE:** Epealdian jarduerarik egin ez baldin bada, gurutze batekin markatu beharko da horretarako prestatuta dagoen laukia (90).

**5. ORDEZKO AUTOLIKIDAZIOA:** Autolikidazioa lehenago aurkeztutako beste baten "ordezkoa" izatekotan, egoera hori adieraziko da (91) laukian.

**6**. Markatu (92) laukia, Hileko Itzulketako Erregistroan inskribatuta bazaude. Bestela, markatu (93) laukia.

**7. AUTOLIKIDAZIOA:**

**BEZ SORTUA:**

- Araubide orokorrerako erreserbatutako laukietan (01etik 209ra), baliokidetasun errekargurako erreserbatuetan (10etik 218ra) eta EBren barruko ondasun eta zerbitzu eskuratzeetarakoetan (19tik 227ra), likidazio epealdian sortutako oinarriak eta kuotak adierazi behar dira, batzuk eta besteak aplikagarria den zerga tasaren arabera bereizita.
- Oinarrien eta kuoten aldaketa: Araubide orokorreko laukietan (370 eta 371), baliokidetasun errekargukoetan (374 eta 375) eta EBren barruko ondasun eta zerbitzu eskuratzeetako laukietan (376 eta 377), osorik edo zati batean balio gabe geratu diren edo burutu eta gero beren prezioa aldatu den eragiketen zerga oinarriak eta kuotak edo baliokidetasun errekarguak adierazi behar dira.

Halaber, araubide orokorreko laukietan (370 eta 371) eta baliokidetasun errekargukoetan (374 eta 375), adierazi beharko dira oinarriaren eta kuotaren edo baliokidetasun errekarguaren aldaketak, arrazoi hauengatik sortuak: urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuaren (hemendik aurrera, BEZaren Araua) 80.Hiru artikuluan jasotzen diren konkurtso deklarazioko autoarengatik edo dekretu beraren 80.Lau artikuluan jasotzen diren kreditu osotoro nahiz partez kobraezinengatik.

- Subjektu pasiboaren inbertsioagatik sortutako BEZa: (372) eta (373) laukietan, subjektu pasiboaren inbertsioagatik epealdian sortutako zerga oinarrien eta kuoten guztirako batura adierazi behar da (BEZaren Arauaren 84.Bat 2. eta 4. atalak eta 140.quinque artikulua).
- Bidaiarien araubidean salmentarik egitekotan, epealdian araubide honengatik egindako itzulketei dagozkien zerga oinarriak eta kuotak kenduko dira autolikidazioan.

**BEZ KENGARRIA:**

- (30) - (35) laukietan, jasandako BEZaren kuota kengarrien zenbatekoa adierazi behar da, barne eragiketak, inportazioak eta ondasun eta zerbitzu arrunten eta inbertsio ondasunen EBren barruko eskuratzeak behar bezala bereiziz, hainbanaketa erregela aplikatu eta gero, hala badagokio.
- (36) laukian, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide bereziaren pean dauden subjektu pasiboei ordaindutako konpentsazioen zenbatekoa adierazi behar da.
- (37) laukian, inbertsio ondasunengatik aurreko epealdietan egindako kenkarien erregularizazioaren emaitza adierazi behar da, jardueraren hasiera baino lehenagoko kenkarien erregularizazioa barne hartuta, hala dagokionean. Erregularizazioaren emaitza kenkarien murrizketa baldin bada, zeinu negatiboaz idatzi behar da.

**LURRALDE BAKOITZARI APLIKAGARRIA ZAION ERAGIKETEN ZENBATEKOAREN BANAKETA PROPORTZIONALA:**
Subjektu pasiboak lurralde batean baino gehiagotan jarduten badu eta bere eragiketen zenbatekoarengatik administrazio bati baino gehiagori ordaindu behar badio zerga, urte bakoitzean zehar eta lurralde bakoitzean egindako eragiketen zenbatekoaren arabera zehaztutako ehunekoak adierazi behar dira (40), (41), (42) eta (43) laukietan. Horrela ez bada, "100" adierazi behar da (40) laukian.

**ARABAKO LURRALDE HISTORIKOARI EGOTZI AHAL ZAION KUOTA (44):** Lauki honetako zenbatekoa (39) laukiarena bera izango da. Hala ere, subjektu pasiboak Arabako Foru Aldundiari eta beste lurraldeetako batzuei ordaindu behar badie zerga, agertu behar den zenbatekoa hau da: (44) = (39) bider (40).

**AURREKO EPEALDIETAKO KONPENTSATZEKO KUOTAK, ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKOAK:** (45) laukian, aurreko epealdietatik datozen konpentsatzeko kuoten zenbatekoa adierazi behar da. Subjektu pasiboak administrazio bati baino gehiagori ordaintzen badie zerga, bakar-bakarrik Arabako Lurralde Historikoan konpentsatzeko saldoa jarri behar da lauki honetan.

**EMAITZA:**

ZERGA ZORRA GUZTIRA (80): (60) laukiko emaitza positiboa gehi berandutze errekargua eta berandutze interesak (hala badagokio), ken oraingoaren epealdi eta ekitaldi berari dagokion autolikidazio baten bidez lehenago sartutako kuota (behin-behineko kuota), ordezko autolikidazioak direnean.

KONPENTSATZEKOA, GUZTIRA (82): (60) laukiko emaitza, edo (60) laukiko zenbatekoaren eta (63) laukikoaren (behin-behineko kuotaren) arteko diferentzia, baldin eta, kasu batean nahiz bestean, emaitza negatiboa bada eta zergaduna ez badago inskribatuta Hileko Itzulketako Erregistroan edo, inskribatuta egon arren, ez badu eskatu nahi autolikidazioaren ondoriozko bere aldeko saldoaren itzulketa.

ITZULTZEKOA, GUZTIRA (81): (60) laukiko emaitza, edo (60) laukiko zenbatekoaren eta (63) laukikoaren (behin-behineko kuotaren) arteko diferentzia, baldin eta, kasu batean nahiz bestean, emaitza negatiboa bada eta zergaduna inskribatuta badago Hileko Itzulketako Erregistroan.

**EB-REN BARRUKO ONDASUN ETA ZERBITZU EMATEAK, GUZTIRA:** (50) laukian, autolikidazioaren epealdian EBko kide diren beste estatu batzuetara egindako ondasun eta zerbitzu emate salbuetsien zenbatekoa adierazi behar da.

**ESPORTAZIOAK ETA HORIEN PAREKO ERAGIKETAK, GUZTIRA:** (51) laukian, autolikidazioaren gaia den epealdian Kanariar uharteetara, Ceutara eta Melillara egindako behin betiko esportazioen zenbateko osoa adierazi behar da.

**ZERGAPEAN EZ DAUDEN ERAGIKETAK ETA SUBJEKTU PASIBOAREN INBERTSIOA IZANIK KENKARI ESKUBIDEA EMATEN DUTEN ERAGIKETAK, GUZTIRA:** (52) laukian, honako eragiketa hauek autolikidazioaren gaia den epealdian izan duten zenbateko osoa adierazi behar da: kokatze erregelak aplikatuz zergapean ez dauden ondasun eta zerbitzu emateak, eta BEZaren Arauaren 84.Bat 2. artikuluko b), c), d), e) eta f) letren eta 140. quinque artikuluaren arabera subjektu pasiboa aitortzailea ez baizik eta hartzailea dutenak.

**AURKEZPEN LEKUA:**
Autolikidazioak bide telematikoz aurkeztera beharturik ez dauden subjektu pasiboentzat, autolikidazioaren emaitza "sartzeko" bada, Arabako Foru Aldundiak entitate laguntzaile bezala jarduteko baimendutako kreditu edo aurrezki banketxeetan aurkeztu beharko da. Autolikidazioaren emaitza "konpentsatzeko" izanez gero, Zergadunekiko Harremanetarako Zerbitzuan aurkeztu beharko da, "leihatila bakarrean".

## INSTRUCCIONES

